

URNIETAR PRESTU IZENDAPENAREN ARAUDIA

I ATALA: IZAERA ETA HELBURUA

1. araua.- *Urnietar prestu* izendapena ohorezko aipamena da, hartzaileari bere merezimenduengatik egozten zaiona eta, beraz, hura jasotzeak ez dakar bat inolako sari-ekonomikorik, ez izendapenaren unean ez etorkizunean ere. Urnietar prestu izendapena Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren baitan sorturiko aipamena da, araudi honen bidez eratu eta arautuko dena.

2. araua.- *Urnietar prestu* izendapenaren xedea, bere zentzurik zabalenean Urnieta herriaren eta bertako herritarren alde eskuzabaltasunez, ordain edo irabazi asmorik gabe, hurkoekiko elkartasunagatik, altruismoz eta nork bere borondatez egindako lan, ekarpen, ahalegin, buruturiko ekintza edo landu eta gauzaturiko ekimen eta jarduera onuragarriengatik Iñistorra Biltzarraren esker ona, aintzatespena eta ezagutza aitortzea da, eta jendaurrean agerian uztea.

Oso bereziki izaera edo alor hauei dagozkienean:

2.1.- Euskal kultura tradizionalaren osagai diren eduki edo ondasunak -euskara, folklorea, artea, kultur adierazpenak...- Urnietan bertan zaindu, iraunarazi, biziberritu, suspertu edo ezagutzera emanez egindako ahaleginarengatik.

2.2.- Euskal kultura modernoaren osagai diren eduki eta ondasunak Urnietan bertan landu, gauzatu eta herritarrei ezagutzera emanez egindako ahaleginarengatik.

2.3.- Euskararen erabilera suspertu, biziberritu eta zabaltzearen Urnietan bertan egindako lan eta ahaleginarengatik.

2.4.- Kirol jarduera tradizionalak eta egungoak Urnietan bertan suspertu, zaindu, iraunarazi eta zabaltzearen egindako lanaren ordainetan.

2.5.- Lagun-hurkoarekiko elkartasuna, laguntza eta duintasuna xede duten gizarte-ekintzak Urnietan bertan garatu eta burutu izanaren ordain gisa.

2.6.- Urnietako herriaren zerbitzuan ahaleginez eta eskuzabaltasunez egindako lanen ordain gisa.

2.7.- Urnietako herria edo herritarrak beste herrialde edo kultur adierazpenekin harremanetan jartzeagatik buruturiko ekimenen ordain gisa.

2.8.- Aurreko puntuetan adieraziriko alor edo ekimen guztietan urnietarren bat nabarmen dadinean Urnietatik kanpo herrialde bat edo gehiagotan ala euskal gizarte osoan aintzatesteko neurrian.

3. araua.- *Urnietar prestu* izendapena urtero eman ahal izango du Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak, horretarako jardunbidea apiriletik aurrera izapidetuz. Nolanahi ere, izendapena ebatzi gabe utzi ahal izango du merezimendu nahikoarik biltzen duen izendagairik gertatzen ez den bitartean, urte batean izan ala anitzetan.

4. araua.- *Urnietar prestu* ohorezko izendapena bateragarria da Urnietako Udalak eman dezakeen beste edozein sari edo ohorezko izendapenekin (Seme/Alaba Kuttun, Ohorezko Seme/Alaba, Urnietako domina...), merezimendu berdin edo antzekoengatik emana izan arren.

II. ATALA: EMAILEA

5. araua.- *Urnietar prestu* izendapena Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak ebatziko du, nahikoa izango delarik horretarako izendapena erabakitzeko jardunbide osoan esku hartzen duten biltzarkideen gehiengo soila.

6. araua.- Ohorezko izendapena emateko proposamena Iñistorra Biltzarreko edozein bazkidek egin ahal izango du, baita Larramendi Kultur Bazkunekoek ere. Bazkideez gain, Urnietako beste edozein elkarte, talde edo erakunderen proposamena jaso ahal izango da, baina beti ere idatziz eta behar hainbat zurituz proposaturiko lagun edo taldearen merezimenduak.

7. araua.- Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak gehiengoz ebatziko du izendapena, baina erabaki hori Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharko du. Ez onestekotan, Zuzendaritzak idatziz adierazi beharko dio Iñistorra Biltzarrari zein zio

edo arrazoi dauden izendapena ontzat ez emateko. Zuzendaritzak adierazitako zio edo arrazoi horien arabera eman beharko dio jarraipena Biltzarrak jardunbideari, eta hala ez bada proposamena aldatu edo bertan behera utzi.

III. ATALA: IZENDAGAIA

8. araua.- Honakoak izenda litezke *Urnietar prestu*:

8.1.- 16 urtetik gorako norbanako urnietarrak.

8.2.- 16 urtetik gorako norbanako urnietarrak, baina buruturiko jardueran taldea osatu dutenean, hots, bat baino gehiago direnean: bikoteak, hirukoteak..., emazte-senarrak, haurrideak... Nolanahi ere, ez dira halakotzat hartuko izaera juridikoa berariazkoa duten taldeak.

8.3.- Nortasun juridiko berariazkoa duen talde, elkarte edo erakunde oro, urnietarra izan ala ez.

9. araua.- Urnietar iritziko da Urnietan jaioz geroztik erroldaturikoa edo gutxienez herrian 20 urtez erroldaturikoa.

10. araua.- Urnietar prestu izendapena bizirik diren lagunei edo erakundeei egingo zaie. Ez du, beraz, hilondoko izaerarik izango.

IV. ATALA: IZAPIDEA ETA EBAZPENEA

11. araua.- Izendapena erabakitzeko jardunbideari hasiera eman dakionean, horretan parte hartu nahi duten bazkideek hala adierazi beharko dute eta izena eman, zerrenda itxi bat osatuko delarik, jardunbidean esku hartuko duten bazkide guztiek sinatu beharko dutena. Hortik aurrerako izapide guztietan zerrenda horretan sarturiko bazkideek baizik ezingo dute esku hartu.

Beraz, zerrenda osatzen duten bazkideen gehiengoz - erabatekoz edo soilez- ebatziko da noren alde egingo den izendapena.

12. araua.- Jardunbidean izendapena esleitzeko proposamenak ahoz zein idatziz aurkeztu ahal izango ditzuzte bazkideek, proposamen guztiak aztertuko direlarik eta, behar izanez gero, bozketara jarri. Edonola ere, proposatzaileak bere hautagaiaren aldeko merezimenduak edo zioak azaldu beharko ditu, beti ere araudi honetan agindutakoarekin bat etortzeraino.

Iñistorra Biltzarretik kanpoko proposamenak, hots, beste talde, elkarte edo erakundeek egin ditzaketenak idatziz baizik ezingo dira aurkeztu, eta horiek ere argi eta garbi adierazi beharko dute zein den proposaturiko izendagaia eta hark bildutako merezimenduak, beti ere araudi honetan finkatutakoari jarraiki.

13. araua.- Jardunbidearen fede emaile eta eragile Iñistorra Biltzarreko ahalduna izango da, bere ardurapean osatuko da izendapena xede duen agiri-bilduma edo espedientea, berak betearaziko du honako araudia eta berak emango dio Zuzendaritza Batzordeari izendapena ebazten duen erabakiaren berri, berrets dezan eskatuz.

Nolanahi ere, ahaldunak eginkizun horiek Biltzarreko beste bazkide batengan eskuorde litzake, jardunbidea hasi aurretik eta hautatzaileen zerrenda osatzen denean egingo balu. Hala eginez gero, eskuordeturiko bazkideak burutuko du jardunbide osoa. Eskuordetza horren proposamena egingo zaio Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeari onets dezan.

14. araua.- Iñistorra Biltzarreko ahaldunak Zuzendaritza Batzordeari ebazpenaren berri emanez jasoko dion agiria jardunbidean esku hartu duten bazkide guztiek sinaturik joango da, proposamenaren aldeko botua emandakoak izan ala ez. Ebazpen agirian, ahaldunak sarituaren izen-deiturak eta merezimenduak laburki jasotzeaz gain, haren aldeko bozkaren xehetasuna emango du, jardunbidean araudi honen aurkako gorabeherarik egon den -eta nola zuzendu den- adieraziz.

15. araua.- Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak *Urnietar prestu* izendapena jasotzen duten saritu guztiei buruzko idazpenak bilduko dituen liburua osatu eta gordeko du.

V. ATALA: IZENDAPENAREN IKURRAK

16. araua.- *Urnietar prestu* izendapenaren ezaugarri edo ikur nagusia lepoko zapia izango da, honako ezaugarriak izango dituena: harizko oihalez egindako zapia izango da, oihal bikoitzez josia, zuri isabeldar kolorekoa eta hiruki edo triangelua osatuko duena, beheko alde bakoitzak 90 cm-ko luzera izango du eta goikoak 120 cm inguru. Oihalak erdi-erdian Urnietako armarrria eramango du dagozkion kolore heraldikoetan brodaturik, armarrria Udaletxeko harrizkoak azaltzen

dituen apaingarriez hornituko delarik, horiek ere brodatuik baina urre eta zilarrean.

Armarriaren gaikaldean *Urnietar prestua* izendapena idatziko da, brodatuik ere, armarriaren urdin heraldikoan; eta armarriaren behekaldean urtea, armarriaren gorri heraldikoan. Zapiaren eskuin aldean Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren logotipoa brodatuko da, gorri eta urre aldaeran, eta ezkerretara Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrarena, berde eta gaztain aldaeran.

17. araua.- Zapiaz gain, sarituak egiaztagiria jasoko du, Larramendi Bazkuneko idazkariak eta Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarreko ahaldunak sinatua, zeinean sarituaren izen-deiturak eta izendapena zein urteri dagokion jasotzeaz gain, izendapena zein merezimendu eta zioengatik egin den labur adieraziko baita.

VI. ATALA: IZENDAPENA EZAGUTZERA EMATEA

18. araua.- Izendapena ezagutzera eman eta sarituari haren ikurrak eskuratzeko, Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak jendaurreko ekitaldia antolatuko du Urnietako zaindari den Mikel Goiaingeruaren omenezko jaien barruan -Sanmieletan, alegia-. Ekitaldi hori Biltzarrak antolatu ohi duen Iñistor jaiaren baitan ospatu ahal izango da, bazkalostean, ala jaietako beste uneren batean.

Nolanahi ere, ekitaldira saritua eta haren ahaide eta hurbilekoak gonbidatuko dira, Urnietako alkate eta udalkideak, elkarte eta erakundeen ordezkariak eta, oro har, urnietarrak.

Izendapenaren ikurrak eman aurretik sarituaren eta bere merezimenduen aldarri edo apologia egingo dute antolatzailleek, eta, behin ikurrak eskuratu ondoren, hitz batzuk egitera gonbidatuko dute saritua.

19. araua.- Sarituari *Urnietar prestu* zapia Iñistorra Biltzarreko ahaldunak jantziko dio lepoan eta Larramendi Bazkuneko ordezkari batek emango dio egiaztagiria.

VII. ATALA: SARITUAREN BETEBEHARRAK

20. araua.- Sarituak, *Urnietar prestu* zapia lepoan jantzi beharra izango du Urnietako jaietako ekitaldietan, sarituz geroztikako urteetan

parte hartzen duenero, bai behinik behin gisa horretako ikurrez egoki apaintzen diren ekitaldietan -segizio, dantza, kalejira, erronda...-. Baldintza hau izango du betebehar bakarra erakunde saritzailearekiko.

VIII. ATALA: IZENDAPENA INDARGABETZEA

21. araua.- Sarituak, *Urnietar prestu* izendapenaren gorazarrea jasoz geroztik izendapena zilegitu zuten merezimenduen guztiz aurkako jokabiderik izango balu, haiek narriatu eta itxuragabetuz, eta aurretik egindako onurak galtzeko bidean jarriz, edota Urnieta herriaren edo urnietarren ohore eta izen onaren aurkako ekimen, jarduera edo jokabiderik hartuko balu bere eskuz, Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak eta, horrenbestez, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, egotzitako izendapena kendu egingo liokete, ebazpena guztiz indargabetuz.

22. araua.- Izendapena ezabatu eta indargabetzeko, izendapena egiteko erabilitako jardunbide berdin-berdina erabili beharko du Iñistorra Biltzarrak, izapidez izapide, ezabatzeko eta indargabetzeko dauden zioak argi eta garbi azaldu beharko baitzaizkio izendatuari.

Izendapena ezabatzeko ebazpena jakinaraztearekin batera horren ikurrak Iñistorra Biltzarrari itzul diezazkion eskatuko zaio izendatuari.

IX. ATALA: XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra: araudi hau, oso-osorik, Urnietako Iñistorra Biltzarreko bazkide guztiei aditzera emango zaie Larramendi Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak onartu eta berrogei egun baino lehen, *Zumitz* berripaperean argitara emanez, egoki iritziz gero zuzenketa, aldaketa edo emendakinik aurkez diezaioten onarturikoari.

Berrogei eguneko epe horretan bazkideek helegiterik aurkeztu ez badute, araudia behin betikoz onartutzat joko da.

Bigarrena xedapen iragankorra: Araudi hau, Urnietako Udalari eta herriko beste elkarte eta erakundeei ezagutzera emango zaie.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapena: *Urnieta* prestu izendapenaren emakida arautzeko, hogeita bi arauz, bi xedapen iragankorrez eta azken xedapen honetaz osaturiko araudi hau Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak 2008ko uztailaren 9an egin zuen batzarrean onartu zuen, aho batez, eta behin-behinean indarrean sartuko da Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak onetsi dezan egunaren biharamunean.

Urnieta eta Zizurkil, 2008, uztailak 10.